

KONTROL MOZIOA

TURISMOAK DONOSTIAKO BIZITZAN, EKONOMIAN ETA GARAPENEAN DUEN ERAGINA BERRIKUSI ETA BIRBIDERATZEKO HIRI-GOGOETA IREKI ETA ESTRATEGIKO BAT ABIATZEARI BURUZ

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko apirilaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Munduko turismo-industria kolpetik gelditu da. Turismo jarduerak pertsonen mugikortasuna dakar ezinbestean, eta hain zuzen mugikortasuna murriztea izan da birus kutsakorra ez hedatzeko munduko herrialdeek hartu duten lehen erabakietako bat. Ondorioz, nazioarteko turismoa goitik behera eroriko da aurten, eta neurri handi batean atzerriko bisitarien menpe dauden eskualdeak izango dira kaltetuenak.

Turismoak pisua hartu du azken urteotan EAEko BPGan, eta dagoeneko % 6tik gora ordezkaten du; Gipuzkoan % 7tik gorakoa, eta % 11tik gorakoa Donostian. Azken Hiri-Ekonomiaren Barometroaren arabera, 2018an Donostiak 692.642 bidaiari hartu zituen, 2017an baino % 8,1 gehiago. Bilakaera horretan, espainiar estatutik kanpo heldutako bidaiarien hazkundera % 11,1 izan zen eta estatutik heldutakoena % 4,7. Denbora tarte berean, hiriko hoteletan ostatu-gauak % 3,9 igo ziren, horietako % 57,8 nazioartekoak zirela. Hau da, bidaiarien bilakaeraren pare, atzeritarren ostatu-gauak % 11,6 hazi ziren eta estatukoak % 6,2. Datu hauek azken urteetako joeraren berri ematen digute, eta aldi berean, nazioarteko turismoak Donostian duen eragina agertzen dute. Hirian gailendu den ostatu ereduak ere Donostian turismoak izan duen hazkundera nazioarteari zeinen lotuan

dagoen adierazten digu. Izan ere, eta Donostiako 2017-2021 Turismo Planak jasotzen duenez, 2015. eta 2016. urteetan hoteletan egin ziren inbertsioen zati handi bat esaterako nazioarteko inbertsio funtsek egin zuten.

Gaurko osasun larrialdiak agerira ekarri du zenbaterainoko dependentzia garatu duen munduko ekonomiak erabat lurrunkorra den industria turistikoarekiko. Erakutsi digu turismoak tokiko ekonomian sortzen duen mendekotasuna, eta diru sarrera nagusiak turismoaren mende dauzkaten herrialdeak dagoeneko hondamendi ekonomikoa pairatzen ari dira. Izan ere, turismoa fenomeno globala da, eta Covid-19 birusaren krisiak agerira ekarri duen bezala, geopolitikak eta mundu mailako prozesuek edo gertakariak erabat baldintzatzen dute. Eta aurrerantzean baldintzapen hauek areagotu egingo direla nabarmena da. Izan ere, ezin ahaztu dugu gainean dugun krisi ekologikoa eta klima larrialdia, edo honi zuzenean lotzen zaion energia tradizionalen agortzea.

Bestalde, azken urteetan turismoak gurean izan duen hazkundearen atzean bestelako datuak ere ezkututzen dira. Esaterako, sektoreak enplegu ugari sortu baditu ere, kontuan hartu behar da turismoari lotutako hamar enplegutatik bat bakarrik dela finkoa, eta horrek erraztu egin du gaur egungo enplegu galera.

Honek guztiak urgentziazkoa eta ezinbestekoa egiten du turismoak Donostiako bizitzan, ekonomian, hots garapen ereduan, duen eragina berrikusi eta birbideratzeko hiri-gogoeta ireki eta estrategiko bat abiatzea. Martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean alorreko zinegotzi ordezkariari honetaz galdetuta, ordea, erantzun zuen egun indarrean dagoen Donostiako Turismo Gida Plana 2021. urtean iraungitzen dela eta, beraz, proposatutako gogoeta plan berria osatzeko prozeduraren arabera izango dela. Baina aurkeztutako datuek gogoeta, norabidetzea eta erabakiak hartzea benetan urgentea dela adierazten dute. Gaurko erabakiek biharko egoerak sortzen dituzte, eta osasun larrialdiak eragindako krisi ekonomikoari erantzuteko neurriak aurkezten ari garen honetan, turismoari buruzko gogoeta estrategikoa gerorako uzteak iraganeko akats berak errepikatzen eraman gaitzake. Izan ere, galdera dagoeneko ez da noiz eta zein laguntzarekin itzuliko den turismoa krisi aurreko egoerara, baizik eta ea egoera berera itzuli behar ote duen.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen abiatu dezala datozen urteetan turismoak hiriko garapenean izango duen eginkizunari buruzko hiri-gogoeta ireki eta estrategikoa.

2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako turismo estrategia berria diseinatu eta adosteko prozeduran herritarrek eta elkarte edo eragile sozialek ere parte har dezaten beharrezko bitartekoak ziurtatzea.

Donostian, 2020ko maiatzaren 19an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia